



EHU Palestinarekin STOP GENOCIDE

Askatasuna

Nire askatasuna.
Utzi hitzei txinparta izaten, eta hedatzen,
nire jaioterriaren zentimetro oro estaltzeraino
Ziurrenik begiratuko ditudan
hilobiak barne.
Askatasun Gorriak
ate bakoitzean jotzen du
eta iluntasunean argitzen du
lainoak garbitzearekin batera.

Fadwa Tuqan

Egun on eta eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitateko kide guztiei Donostian, Gasteizen eta Leioan egiten ari garen elkarretaratzeekin bat egiteagatik. Balio dezala irakurketa honi hasiera eman dion Fadwa Tuqan idazlearen poemak bere jaioterriraino, Palestinaraino, elkartasun mezu bat bidaltzeko.

Euskal Herriko Unibertsitateko komunitate osoak bat egiten du munduko bazter guztietatik entzuten diren eta berehalako su-etena eskatzen duten ahotsekin. EHUK irmoki salatu du Israelgo Gobernuak Palestinaren kontra egiten ari den genozidioa (A/HRC/55/73) eta babesa adierazi dio palestinar herriari. Salaketa hori eta elkartasun hori berresten ditugu gaur.

Era berean, Global Sumud Ontzidiarekiko elkartasuna adierazten dugu eta ozen salatzen ditugu jasan dituen erasoak. Gure babesa, miresmena eta eskerrona adierazten dizkiegu Gazara bidea egiten ari diren 42 ontzietako pertsona guztiei.

Israelgo Gobernuak giza eskubideen urraketa etengabea ari da egiten; ez bakarrik Gazan, baita Zisjordanian ere, eta metodo berberak erabili ditu Palestinaren aldeko ontzidiaren kontra jotzeko ere.

Unibertsitateko komunitateari dagokio giza eskubide guztien aldeko defentsa eta horien urraketaren salaketa egitea. Gure ardura etikoak eskatzen digu ezinbestean ahotsa altxatzea. Jasangaitza da Palestinako herriari eragiten ari zaion sufrimendua. Horregatik aho batez salatzen dugu Israelgo gobernuak eta armada Gazan eta Zisjordanian praktikatzen ari diren apartheidak, garbiketa etnikoa eta erailketa sistemikoa. 2023ko urriaren 7tik 65.000 palestinar erail ditu, 167.000 zauritu, 200.000 desplazatu arazi eta gosez hiltzera kondenatu palestinar biztanlegoa.



Nazioarteko zuzenbide humanitarioari errespetua eta aplikazioa eskatzen dugu Gazako lerroan, eta behingoz laguntza humanitarioa sartzen uztea.

Egoera lazgarria delako elkartu gara gaur EHUko hiru campusetan. Ez da nahikoa bakea aldarrikatzea herri oso bat gosez erailtzen denean, Nazio Batuen Erakundeak salatu bezala. Horregatik isilik geratzea ez da aukera bat.

Gaur inoiz baino ozenago, inoiz baino bateratuago, unibertsitate komunitatearen ezinegonak eta elkartasuna plazaratu ditugu, eta Palestinako herriaren aldeko aldarrikapena egin dugu,

EHU Palestinarekin, zabaldu dadila munduaren luze zabalean gure ahotsa: STOP THE GENOZIDE.

2025eko irailaren 29an



EHU Palestinarekin STOP GENOCIDE

Libertad

Mi libertad
Deja que las palabras sean una chispa que se extienda
cubriendo cada centímetro de
mi tierra nativa
incluso las tumbas
que quizá mire
La Libertad Roja
toca en cada puerta
e ilumina en la oscuridad
arrasando con la neblina.

Fadwa Tuqan

Buenos días y muchas gracias a todos los miembros de la comunidad de la Euskal Herriko Unibertsitatea por uniros a las concentraciones que estamos realizando en Donostia, Gasteiz y Leioa. Sirva la lectura del poema de la escritora Fadwa Tuqan para enviar un mensaje de solidaridad hasta su lugar de nacimiento, Palestina.

Toda la comunidad de la Universidad del País Vasco se suma hoy las esas voces que desde todas las partes del mundo reclaman un alto el fuego. La EHU ha condenado firmemente el genocidio (como la relatora especial de la ONU Francesca Albanese define en el informe A/HRC/55/73) que el Gobierno de Israel está llevando a cabo en Palestina y ha mostrado su solidaridad al pueblo palestino. Hoy nos reafirmamos en esa condena y solidaridad.

Así mismo, queremos mostrar nuestra solidad con la Flotilla Global Sumud y denunciar alto y claro los ataques que ha sufrido. Nuestro apoyo, admiración y agradecimiento a las personas que navegan en 42 barcos hacia Gaza.

El gobierno de Israel está conculcando derechos humanos incesantemente; no solo en Gaza, también lo hace en Cisjordania y utiliza los mismos métodos contra la flotilla en favor de Palestina.

Corresponde a la comunidad universitaria la defensa de todos los derechos humanos y la denuncia de su vulneración. Nuestra responsabilidad ética nos exige inevitablemente alzar la voz. Es insoportable el sufrimiento que se está infligiendo al pueblo palestino. Por eso denunciemos enérgicamente el apartheid que el Gobierno y el ejército de Israel están practicando en Gaza y Cisjordania, la limpieza étnica y la matanza sistémica que se está llevando a cabo. Desde el 7 de octubre de 2023 más de 65.000 palestinas y palestinos han sido asesinados, 167.000 heridos y 200.000 obligados a desplazarse. Además, se ha condenado a morir de hambre a toda la población palestina.



Pedimos respeto y aplicación del derecho internacional humanitario en la franja de Gaza para, de una vez por todas, permitir la entrada de ayuda humanitaria.

Nos hemos concentrado en los tres campus de la EHU porque la situación es terrible. No es suficiente reivindicar la paz cuando se está matando de hambre a todo un pueblo, tal y como ha denunciado Naciones Unidas. Y por eso, no es una opción quedarnos callados.

Hoy más que nunca, más unidas que nunca, mostramos el malestar y solidaridad de la comunidad universitaria y nos reivindicamos en favor del pueblo palestino.

EHU con Palestina, que se escuche nuestra voz a los cuatro vientos: STOP THE GENOZIDE.

29 de septiembre de 2025